

ADIERAZPENAK



**BILBAO**2018

GLOBAL SOCIAL  
ECONOMY FORUM

Gizarte Ekonomia eta Hiriak

**Tokiko garapen  
inklusiborako eta  
iraunkorrerako balioak  
eta lehiakortasuna**

**BILBO ADIERAZPENA  
GENERO ADIERAZPENA  
GAZTEEN ADIERAZPENA**



**Bilbao**

[www.gsef2018.org](http://www.gsef2018.org)

## **GSEF2018 –BILBO ADIERAZPENA**

2018ko urriaren 3a – Bilbo

*2018ko Ekonomia Sozialerako Mundu Foroan —GSEF2018, Bilbon— parte hartu dugun 84 herrialdetako 1.700 pertsonak adierazi egiten dugu, herritar guztiei, inor baztertu gabe, eta planetari onura ekarriko dien garapen ekonomikoa gauzatuko bada, demokraziaren, justizia sozialaren, elkartasunaren, dibertsitatearen eta bakearen printzipioetan oinarrituta egon beharko duela.*

### **Gaur egungo testuingurua**

Gaur egungo erronkak inoiz baino abiadura eta irismen handiagoz gertatzen ari dira. Teknologia disruptiboak eta adimen artifiziala, klima-aldaketa, globalizazioa, migrazioa eta demografia-aldaketak bestelako errealitatea osatuz doaz, eta egungo garapen-eredua gogor saiatzen ari da errealitate horretara egokitzen. Gure lan-merkatua ere azkar eraldatzen ari da, eta gero eta gehiago dira laneko eskaintza mota ezegonkorrak eta ezohikoak. Agerikoa da, beraz, lanaren etorkizunari heltzeko estrategia berriak diseinatu beharra dagoela. Horren harira, politika berriak behar ditugu, hiriek eta erkidegoek lan duina, gizarte-babesa eta guztientzako onura ziurtatzeko erronkei aurre egin ahal diezaieten. Helburu hori lortzeko, ordea, ezinbestekoa da alderdi interesdunek parte-hartze handiagoa izatea. Politika publikoen eraikuntza bateratua gizarte-ekonomian txertatuta dago, gaur egun.

Termino ezberdinak erabili arren, gizarte-ekonomian eta gizarte-ekonomia solidarioan balio berak lantzen dira, hau da, lehentasuna pertsonen ematea (eta ez kapitalari), gobernantza demokratikoa eta trantsizio ekologikoa eta bidezkoa egiteko konpromisoa. Herrialde eta eskualde askotako azken joerak erakusten dute gazteek gero eta garrantzi handiagoa ematen dietela balio eta printzipio horiei, eta sektore guztietan balio eta printzipio horiek ezartzen lagundu nahi dutela, elkarlanaren bidez.

Era berean, jakitun gara garapen jasangarrirako 17 helburuak kokatu behar direla, garapen jasangarrirako agenda 2030erako bete ahal izateko. Gizarte-ekonomiaren eta gizarte-ekonomia solidarioaren ekarpena funtsezkoa da gizarte jasangarria, inklusiboa, indartsua eta malgua eraikitzeko; eta Nazio Batuen Erakundeko agentziek, gobernuek eta gizarte zibilak gero eta argiago ikusten dute oinarritzkoa dela, helburuok betetze aldera. Izan ere, gaur egun, eragile eta sare asko ahalegin oso handiak egiten ari dira arlo horretan. «The World Forum of Local Economic Development» eta «Localizing SDGs» lineako baliabideak dira, eta oso ondo erakusten dute helburuak bideratzeko eta munduan kokatzeko egiten ari den lana.

### **Gizarte Ekonomiarekiko eta Gizarte Ekonomia solidarioarekiko konpromisoa**

Estatuko, eskualdeko eta tokiko gobernu askok esparru-legeak eta politika publikoak ezarri dituzte, gizarte-ekonomiako eta gizarte-ekonomia solidarioako enpresei eta erakundeei laguntza emateko. Xedea irtenbide berri eta eraginkorrek topatzea da, ekonomia-sektore guztietan tokiko beharrei erantzun ahal izateko. Horrez gain, partaidetza-aurrekontuak, tokiko

moneta eta finantzaketa solidarioko mekanismoak ere bultzatu dituzte. Bestalde, kontratazio publikoetan klausula espezifikoak ere sartu dira. Neurri, lege eta politika horiek bi xede betetzen ari dira: batetik, tokiko jardunbideak lurraldeetan zehar zabaltzea eta eskalatzea; eta, bestetik, aldaketa sistemikoaren katalizatzaileak izatea makro mailan, non gizarte-ekonomiak eta gizarte-ekonomia solidarioak demokrazia eta gure gizarteen eraldaketa inklusiboa bultzatzeko jarduten baitute.

### **Tokiko garapen inklusiboa eta jasangarria sustatzeko balioak eta lehiakortasuna**

Gizarte-ekonomiako eta gizarte-ekonomia solidarioko enpresak eta erakundeak bideragarriak eta eraginkorrak dira; baina, horrez gain, gizarte-balioa eta itzulkin ekonomikoa ere sortzen dituzte. Haien jarduerak inpaktua sortzen du gizartean, eta, gainera, itzulkin ekonomikoak erkidegoan edo erakunde berrir inbertitzeko erabiltzen dituzte; hartara, etengabea da haien xedea betetzeko gaitasuna. Horretan datza, hain zuzen, haien lehiakortasuna.

Tokian kokatuta, ingurumena zaintzen dute, kontuan hartzen baitute beren jardueren ingurumenean sortzen duten inpaktua. Gizarte-ekonomiako eta gizarte-ekonomia solidarioko enpresek eta erakundeek lan duina sustatu eta sortzen dute, justizia sozialaren eta lan-eskubideak errespetatzearen aldeko balioetan oinarrituta daudelako. Subiranotasuna eta gardentasuna nabariagoak dira enpresa eta erakunde horietako hornidura-kateetan, eta erkidegoaren beharrak aintzat hartzen dituzte, ondasunak eta zerbitzuak emateko. Izan ere, gobernantza demokratikoa eta kudeaketa-jardunbideak muinean dituzte.

Gutxiengoan eta egoera ahulagoan dauden taldeen inklusioa —emakumeena, pertsona gazteena, zaharrena, desgaitasuna dutenena— sustatzeko konpromisoa azpimarratzen dute balio eta printzipio horiek. Horrez gain, elkartasunean eta konfiantzan errotuta dagoen gizarte baketsu, indartsu eta ireki baten zutabe nagusiak dira.

### **Erabakiak**

Montrealgo 2016ko Adierazpena oinarri hartuta, guk, gizarte-ekonomiako eta gizarte-ekonomia solidarioko enpresetako eta erakundeetako, tokiko gobernuetako eta eskualdeko gobernuetako ordezkariok, beste bazkide batzuekin batera, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Jarraitu egitea politika publikoak batera eraikitzen eta garatzen, bai eta gure hiriek eta erkidegoek aurre egin behar dieten erronka nagusietan dugun eginkizun garrantzitsua berresten ere.
- Lehenetsuna ematea gizarte zibilaren ekarpena bultzatzen eta koordinatzen duten prozesuak eta foroak sustatzeko eta finantzatzeko lanari, eta helburu horiek lortzeko ahalegina egiten jarraitzea.
- Gizarte-ekonomiako eta gizarte-ekonomia solidarioko entitateen beharrak eta trebetasunak identifikatzeko eta entitate horien eragina neurtzen duten ikerketak aintzat hartzea eta horretarako laguntza ematea, maila guztietako eragileen jakintza hobetzeko eta jardunbide egokiak zabaltzen laguntzeko.
- Estatu kideei proposatzea Nazio Batuen Erakundeari eskatzea gizarte-ekonomia solidarioari buruzko ebazpen bat eman dezan.
- Lurraldeen arteko loturak garatzeko elkarlan handiagoa egitea (hirietan eta landa-

ingurunetan) eta koherentzia politikoa gobernu-eremu guztietan handitzeko lana egitea (tokiko, eskualdeko, estatuko zein nazioarteko eremuetan).

- Finantzatze etikoa, alternatiboa eta solidarioa, bai eta tokiko aurrezkiak ere, bideratzea, gizarte-ekonomia eta gizarte-ekonomia solidarioa gehiago garatzen laguntzeko.
- Ingurumen-jardunbideak hobetzea, produkzio- eta kontsumo-zirkuituetan gardenagoak izateko, behar dugun trantsizio ekologikoa modu bidezkoan gerta dadin.

Gutako bakoitzak —gizarte-ekonomiako eta gizarte-ekonomia solidarioko entitateetako ordezkariok, gobernuok, unibertsitateok, ikerketa-institutuok, NBEk eta beste nazioarteko erakunde batzuok— dituen eginkizuna, erantzukizuna eta indarra baliatuz ahaleginduko gara erabaki horiek betetzen, eta elkarlana egingo dugu, tokiko garapena inklusiboa, bidezkoa, indartsua, malgua eta jasangarria izan dadin.

## **GSEF2018 – GENERO BERDINTASUNA ETA GIZARTE EKONOMIA. Ekonomia eta gizarte eredu inklusiboaren aldeko adierazpena**

2018ko urriaren 3a – Bilbo

Joan den martxoaren 8an, mundu osoko milaka emakumek inoiz ez bezalako greba orokorra egin zuten; izan ere, enpleguan ez ezik, zaintza-lanetan eta kontsumoan ere izan zuen eragina lanuzteak, gizarteari erakusteko emakumeak planto egiten dugunean, munduak dar-dar egiten duela.

Genero-berdintasuna bermatzeko eta gure bizitzetan eragiten duten indarkeriak erausteko premia aldarrikatzea zen greba horren helburua, eta manifestazio jendetsuak egin ziren. Bilbon ere, mundu osoko hiri askotan bezalaxe, genero-desberdintasunak desagerraraztea eskatzeko manifestaldiak emakumez, eta gizonen ere bai, bete zituen gure kaleak.

Gizarte-ekonomia ez dago, eta ezin da egon, aldarrikapen horietatik kanpo. Izan ere, gure enpresa eta erakunde-eredu ugariaren balioetako bat genero-berdintasuna da. Kasu askotan ez da asmo hutsa, benetako egoera baizik, egunez egun emakumeek lortu dutena.

Dena den, gizarte-ekonomiako erakundeak genero-berdintasunaren alde aritu arren, azken urteetan bide horretan aurrera egin bada ere, eta nahiz eta emakumeek egunerokotasunean kemena eta erabakitasuna erakutsi, oraindik ere badira lortu beharreko helburuak.

Jakina, generoan oinarritutako botere-harremanak errepikatu egiten ditugu, sarritan konturatu gabe. Halaxe gertatzen da, nahiz eta gure proiektu ekonomikoak eta profesionalak pertsona guztiengan ardaztuta egon, eta nahiz eta aukera-berdintasuna eta ekitatea gizarte-ekonomiaren funtsezko zutabetzat hartu.

Elkartasuna, lankidetzeta eta demokrazia gizarte-ekonomiaren funtsezko balioak dira, eta genero-berdintasuna dagoeneko bermatuta eduki beharko genuke, gizarte-ikuspegitik inklusiboa den ekonomia-eredu baten baitan.

Era berean, emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa da gizarte-ekonomiatik eta gure balioak oinarri hartuta pauso garrantzitsuak ematen hastea. Beraz, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Lan-merkatu inklusiboa sustatzea, aniztasuna eta desberdintasunak aintzat hartuta, pertsona guztiarentzat aukera-berdintasuna eta kalitateko enplegu duina bermatuko duena.
- Diskriminazio-modu guztiak irmotasunez arbuiatzea; izan ere, bizi-baldintzak hobetzeko nahitaezkoa baita garapen-eredua emakumeen berdintasunezko partaidetzan oinarrituta egotea.

- Gure lan-prozesuak aldatzea, lan produktiboak ez ezik ugaltze-lanak ere aintzat hartzeko, guztiek egiten baitute posible eta iraunkor ekonomia. Eta, halaber, zaintzen ekonomia eta gizarte-balioa kontuan hartzea eta aitortzea.
- Indarkeria matxisten aurrean arbuioa eta gaitzespena adierazteko protokoloak eta berehalako erantzunak sortzea, portaera horiek behin betiko erazteko gure erakundeetan eta gizarte osoan.
- Ordainsarrietan eta erabaki-organoetako ordezkarietan berdintasuna sustatze aldera, gizarte-ekonomiako erakundeen jardunbideak hobetzeko lan egitea, soldata-arrailak edo kristalezko sabaiak desagerrarazita.
- Gizarte-ekonomia etorkizuneko hirien zutabe bihurtzeko helburua bultzatzea, berdintasunezko bizikidetzarako guneak eta herritar inklusiboak susta ditzan.
- Geure ingurua sentsibilizatzea eta kontzientzia kritikoa piztea. Ahaldundu, hezi eta gaitzea toki guztietan, gizarte-ekonomiaren barruan eta kanpoan, genero-berdintasuna exijitzeko.

Eta ez ahaztea gizarte-ekonomiak, izatekotan, ekonomia feminista, ekitatiboa, solidarioa, iraunkorra eta parte-hartzailea izan beharko duela nahitaez!



## **GSEF2018 - GAZTEEN ADIERAZPENA**

2018ko urriaren 3a – Bilbo

### **Gazteen ikuspegia**

Gure ustez lan duina tresna baliotsua da gaur egun gazteez baliatzen den eta gazteak esplotatzen dituen errealitatea aldatzeko, eta hala, jorratzen ari garen krisiaren zati bat konponduko litzateke. Herritarrak, ikasleak, komunitateko eraikitzaileak, esploratzaile kuriosoak, gurasoak, aktibistak, lankideak, aldaketa sustatzaileak, ekintzaileak...Zuk nahi duzuna gara! Hala ere, berdintasun balio eta printzipio hauekin sinesten dugu denok; lan zentzuduna eta inpaktua eragiten duena; balioa irabaztea eta segurtasun ekonomikoa; soldata berdintasuna; adierazpen askatasuna eta gure trebetasunak erabiltzea gizartearen onurarako; lankidetzaren lehiazaren aurretik jartzea; jabetza izateko eskubide bidezkoa; eskubide demokratikoak eta parte-hartze kultura gure lan-baldintzetan eta bizi-kalitatean eragiteko. Ohiko negozio egiturak ez du funtzionatu. Baina elkarren laguntza eta mugimendu solidario handia ditugu guztiok batera esploratzeko, berriz ere imajinatzen hasteko eta mugimendu inklusiboa sortzeko, kritikoa eta aldaketa aldarrikatzen duena. Hala, batera, etorkizuna sortuko dugu. Elkartasunaren boterea oinarri hartu behar dugu inpaktu sistemiko erreala izateko. Gizarte ekimenak bitarteko gisa erabili nahi ditugu eragin soziala sortzeko eta ingurumena jasangarri egiteko eta zaintzeko, ez hura deuseztatzeko. Ahalduntzeko aukerak behar ditugu; gure istorioak, ezagutzak eta baliabideak partekatu nahi ditugu. Batzeko eta mugimendu honen jarraikortasuna bermatzeko espazioak behar ditugu; lan sakonagoa egiteko, helburu handiagoak lortzeko. Espero dugu GSEF horrelako espazio bat izatea.

### **Aholkuak**

Gure ustez gazteentzako espazioak eta gazteen parte-hartzea ez dira sortu behar mugimenduarekiko modu paraleloan. "Gazteria" ez da beste gai soil bat, talde isolatuan edo zenbait tailerretan jorratu daitekeena- alderantziz belaunaldi bat (edo bi!) gara, proiektuak ditugu, baita programan jorratu diren gai gehienei edo guztiei buruzko iritzi eta ikuspuntu propioak ere. Gazte askok parte hartu dute GSEF 2018 ekimenean. ESSek zuzeneko onurak jasoko litzateke gazteek bere egituretan parte hartuko balute, betiere GSEFko egiturak gazteentzako inklusiboagoak eta erakargarriagoak izanez gero.

Hala, uste dugu ESSren egiturek eta GSEF elkarteak etorkizuneko ekimenean gazteak hizlariak, bozeramaileak eta parte-hartzaileak izateko helburuak zehaztu beharko litzateke. Adin datuen jarraipena egin beharko litzateke. Zifrazko helburu bat – % 35 izango litzateke a proposena gure ustez - ezarri beharko litzateke 35 urte baino gutxiago dituzten parte-hartzaileentzako, eta gainera, finantzazio bitartez laguntza eskaini beharko litzateke. Beste helburu bat ezarri beharko litzateke baita ere 25 urte baino gutxiago dituztenek parte hartzeko, askotan ahaztuak izaten baitira "gazteenak diren gazte" horiek.

Gainera, gure ustez gazteak mundu mailako mugimendu horretan integratzeko barneko lana egin behar da. Mundu mailako ESSko gazte lidergoaren zati handi batek GSEF 2020 ekimenean parte hartzen baldin badu, programan gazteen osoko bilkura bat egon beharko litzateke lankidetzaren sustatzeko. Espero dugu topaketa honetatik gazte lidergoen nazioarteko sare bat sortzea, GSEF elkarteak ekimenean aurretik eta horien ondoren egiten duen lanean laguntzeko hain zuzen ere. Espero dugu baita ere ESSren nazio mailako eta tokiko egiturek espazioak sortu ahal izatea gazte talde propioei boterea emateko.



**BILBAO2018**

GLOBAL SOCIAL  
ECONOMY FORUM

Bukatzeko, adierazi behar dugu ESSren onurak jasotzen dituzten eta ESSak bizi-baldintzak aldatzeko erabiltzen dituzten gazte gehienak hegoaldeko eremuetan bizi direla. Hala ere, gure mugimenduan ordezkari gutxien duen kolektiboa horixe da. Nazioarteko ekimenetara joatea galarazten duten oztopo horien aurrean, hegoaldeko eremuetako gazteei laguntzeko esfortzu berezia egin beharko litzateke eta baliabideak erabili beharko lirateke, eta bermatu egin beharko litzateke gazte horiek GSEFren etorkizuneko edizioetan eta ESSren sare globaletan parte hartu ahal izatea.